

IRUN EKINTZAN

IRUNGO GARAPEN EKONOMIKOAREN ETA ENPLEGUAREN ALDEKO
ITUNA

IRAILA 2012

IRUNGO UDALAK PROPOSATUTA EGINIKO DOKUMENTUA.

PARTE HARTZAILEEN PROPOSAMENAK ETA ALDAKETAK JASOTZEKO ZABALIK DAGO DOKUMENTU
HAU.

AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA
2. - IRUN ETA BERE EGUNGO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA
- 3.- “IRUNGO GARAPEN EKONOMIKOAREN ETA ENPLEGUAREN ALDEKO AKORDIO OROKORRAREN” AURREKARIAK ETA JARDUERAK
- 4.- IRUN EKINTZAN: IRUNERAKO JARDUEREN PROPOSAMENA ETORKIZUNEKO GIZARTE ETA EKONOMIA ESPARRUAN

HELBURUA

JARDUERA ARLOAK

- ENPRESA
- EKINTZAILETZA
- KUALIFIKAZIOA ETA INSERTZIO SOZIOLABORALA
- LURRALDEA

- 5.- “IRUN EKINTZAN” ITUNAREN EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA
- 6.- ERAGILE PARTE HARTZAILEAK
- 7.- PROIEKTUAREN FASEAK. KRONOGRAMA
- 8.- EPEA
- 9.- AURREKONTUA

1.- SARRERA

Badakigu oso egoera zaila bizitzen ari garela. Harreman profesional eta ekonomikoetarako ikuspegi berri honen aurrean, ahalik eta eraginkortasun handiena bilatu behar dugu emaitzarik hoberenak lortu ahal izateko. Benetan kezkatu egiten gaitu Irunen dugun langabeziaren indizeak, baina handia da halaber biztanleria aktiboaren tasa, hezkuntza eta prestakuntza zentro interesgarriak ditugu, enpresa lehiakorrek eta, azken batean, maila handiko eragileen sarea, hiriarekin eta bertako jendearekin guztiz inplikatuak daudenak, eta denok batera gogor lan egiteko prest, garapen ekonomikoa eta enpleguaren sorrera bultzatzeko denbora eta baliabideak jarrita. Hiriaren aktibo baliotsua da hori, eta are gehiago garai hauetan, eta Udalak jarraituko du ildo horretatik laguntzen eta lanean.

Izan ere, hiriko eragile guztien laguntza behar dute egungo egoera gainditzeko Irungo enpresei eta herritarrei eskatzen ari zaien ahaleginak eta sakrifizioak, baita Udalarena ere. Irunen ildo horretatik lanean ari gara 2001. urteaz geroztik, Enpleguaren aldeko Itunaren (2001-2004) eta Irungo Garapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren aldeko Akordio Orokorraren (2005-2011) bidez, eta horrenbestez, jarraitu egin behar dugu baterako lan dinamika hori bultzatzen, abantaila handia baita gure inguruko beste lurralde batzuen aldean, arazo beraren aurrean ikuspegi multzo handia izateagatik, jardueren koordinazioagatik eta baliabideen optimizazioagatik.

Helburu berarekin eta aurreko proiektu horien lekukoa hartuta, "IRUN EKINTZAN" jarri dugu abian, Udalak eta enpleguarekin loturiko eragile guztiek, herritarrekin batera, jarrai dezaten garapen ekonomikoa laguntzen eta bultzatzen eta hirirako enplegu iraunkorra sortzen, lehiakortasuna indartzeko dinamikak sortu ahal izateko.

Izan ere, sektore publikoak, berak bakarrik, ezin du lehiakortasun abantaila iraunkorra sortu, baina esku har dezake eta esku hartuko du, hirian inplikaturiko beste eragile batzuekin batera, dauden enpresen berrikuntza sustatu eta bultzatzen, pertsonen prestakuntza eta lehiakortasuna indartzen, instituzioek diseinaturiko ikuspegi estrategikoaren arabera negoziario eta enpresa berriak sortzen laguntzen, horri esker ezagutuko baitugu, etorkizun hurbilean, Irun berritzailea eta etorkizuneko ekonomiak eskatuko dizkigun parametroetan egokitua.

Langabezia tasari begira gure inguruarekin dugun aldea murriztea izango da IRUN EKINTZAN itunaren helburu nagusia. Horretarako, ekonomia garatzeko eta hirian enplegu iraunkorra sortzeko egingo du lan.

Horrekin guztiarekin udalerrri lehiakor eta gizartearekiko erantzule bilakatu nahi da Irun, enpresak, administrazioak eta langileak nahiz herritarrak, oro har, inplikaturik, lurraldea, enpresak eta pertsonak zainduko dituen udalerrria izan dadin.

Sin.: J.A SANTANO

Irungo Alkatea

Irungo Udalak eta Bidasoa bizirik denbora luzea daramate hiriko gizarte eta ekonomia eragileekin batera lan egiten. Gure eskualdeko profesionalen prestakuntza jarraituari eustea, gure ekintzaileen ekimena bultzatzea eta prestakuntza eta harekin batean lan bila dabiltzanen aukera profesionalak handitzea izan da beti guztion helburua. Ikastaroak, informazioa, jarraipena, aholkularitza eta abar..., horietatik dira helburu horiek lortzeko etenik gabe abian dauden ekimenetako batzuk.

Baina gainera, Irunen, kontuan izanik langabezia tasa handiaren aurka egin behar dugula borroka eta egoera ekonomiko guztiz konplikatuan gainera, foro publiko-pribatu bat sortzea erabaki zen 2001. urtean, Enpleguaren aldeko Ituna deitutakoa, konponbide praktikoak eta eraginkorrak barrutik bilatzen laguntzeko, eragile guztiak inplikaturik. Proiektua zabaldu egin zen 2004. urtean, eragile berriak, ugari gainera, jasota, eta Irungo Garapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren aldeko Akordio Orokorra sortu zen.

Garapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren aldeko Akordio Orokor horren bidez hainbat jarduera jarri dira martxan, eta horietako askok jarraitzen diote beren ibilbideari: Espazioa, etorkizuna duten lanbideen Espazioa; Erabat, Bidasoako Hiri Behatokia, KREA, ekintzailetza eta berrikuntza Azoka, K-Biziak, Irungo hiri eremuetan negozio berriak jartzeko alokairu Laguntzak, Gizarte klausula, Bidasoa Prebentzioan, besteak beste.

Udalak eta Bidasoa bizirik Irungo Garapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren aldeko Akordio Orokorrekin egindako lana funtsezkoa izan da gaur egun gauden lekura iristeko, etengabeko lanak aukera eman baitu lan are anbiziotsuagoa, baterakoa eta elkarlanean oinarritua, egin ahal izateko baldintzak lortzeko, Irunen garapen ekonomiko iraunkorra izan nahian betiere. Orain baditugu beharreko oinarriak baterako proiektuak sortzeko eta enpresei eta ekintzaileei laguntzeko negozio berriak sortzeko bidean, eta pertsonen laguntzeko, behar bezala prestatu eta lan merkatuan sar daitezten, lanbideratzeko zailtasun erantsiak dituzten pertsonak ahortzi gabe betiere.

Orain dela jada 10 urte hasitako ekintzari jarraipena emateko ordua da dagoeneko, hiriko enpresen, sindikatuen, prestakuntza zentroen eta hirugarren sektoreko erakundeen eskutik; ekintzara pasako gara horiekin guztiekin, abian jarriko dugu IRUN EKINTZAN.

M.A PÁEZ

Bidasoa biziriketako lehendakaria eta Ogasuna eta Sustapen Ekonomikoko Zinegotzi Ordezkarria

2.- IRUN ETA BERE EGUNGO EGOERA SOZIO-EKONOMIKOA

IRUN

AMIA matriza

Indarguneak	Ahuleziak
<ul style="list-style-type: none"> • Kokaleku estrategikoan dago, Frantzia eta Nafarroako mugan, Baiona – Donostia ardatzaren erdian. • Administrazio digital oso dinamikoa du. • Patente eskaera ugari egiten dituzte enpresek. • Merkataritza sektore indartsua. • Biztanleria aktibo gehiago inguruarekin alderatzen badugu. • Herritarren hezkuntza maila hobetu egin da azken urteetan (%20 gora egin dute erdi eta goi mailek). • Eragile ekonomikoen inplikazioa lurraldearen alde: GEK (Gizarte Erantzukizun Korporatiboa). • 10 urteko lan esperientzia sarean garapen ekonomikoarekin loturiko eragileek: Irungo Ekonomia Garapenaren eta Enpleguaren aldeko Akordio Orokorra. • Instituzio publikoak funtsezko eragileak dira berrikuntzaren bikaintasun kultura bultzatzeko. • Berrikuntza presente dago Irungo enpresetan, modu ez egituratuan egiten bada ere (DUI metodoa). • Enpresa txikiak izateak esan nahi du malguagoak direla, eta berrikuntzari leku egiteko espazio irekiagoak sor daitezke haietan. • Izpiritu ekintzailea du, eta horri esker, enpresa kopuru handia du Irunek, tamaina txikikoak badira ere. • Emakumeen jarduera tasa handiagoa inguruarekin alderatzen badugu. • Eskarmentu handia du ekonomia ehuna birmoldatzen 1992ko krisaren ondoren. 	<ul style="list-style-type: none"> • Langabezia tasa handia. • Atzeraldia enpresa dinamismoan. • Trafiko dentsitate handia. • Berritzeko ekonomia-finantza eta giza baliabide gutxi. Horren ondorioz, enpresek ez dute berrikuntza kudeatzeko prozesu egituraturik. • Hirian dauden enpresa gehienak txikiak dira, banaka egiten dute lan eta oinarritzko teknologia erabiltzen dute. • Prestakuntza arautu maila txikiko pertsonak dituzte batik bat enpresek. • Enpresak eguneroko jardueran oinarritzen dira batik bat, eta alde batera uzten dute epe erdi-luzerako ikuspegia. • Hornitzaile kopuru mugatua dute enpresek, eta horrenbestez, mendekotasun handiegia dute eta oso negoziazio ahalmen txikia, duten tamaina txikiaren ondorioz. • Merkataritza transakzioan oinarritzen da hornitzaile-bezero (enpresa) harremana, azken produktuaren diseinua edo fabrikazioa hobetzeko elkarlanerako loturarik sortu gabe. • Eskualdean bertan egon daitezkeen hornitzaileak, bezeroak eta elkarlanerako aukerak ez dituzte ezagutzen, eskualdean bertan dagoen industria ehuna ere ez dutelako ezagutzen, eta hori dela-eta, ez dira aprobetxatzen eskala-ekonomiak. • Enpresek ez dituzte askorik ezagutzen nazioartekotzeak eskaintzen dituen aukerak.
Aukerak	Mehatxuak

- Burdinbide esparruaren berrantolaketa.
- Natur intereseko guneak: Aiako Harria eta Txingudiko padurak.
- Gaitasun handiko turismo eta aisia sektorea.
- Oso garrantzi handiko komunikazio gunea.
- Politika publikoak enpresa sektorearen beharrekin lerrokatuak.
- Enpresen (bezeroak-hornitzaileak), eragile zientifiko-teknologikoen (unibertsitateak, ikerketa zentroak, zentro teknologikoak) eta instituzioen (publikoak eta pribatuak) arteko loturak indartzea.
- Eskarmentuan oinarritutako prestakuntza handia duten pertsonak daude.
- Enpresek gaitasun handia dute Eskualdeko garapenaren motorra izateko.
- Modu erabakigarrian eta elkarlanean aritzea abantaila lehiakor iraunkorra eraikitzekeko estrategiaren alde, merkatuari ematen zaion balioaren gehikuntzan oinarrituta betiere.
- Kontzientziario prozesu handia egitea enpresa bakoitzak bere gain har dezakeen eta hartu behar duen erantzukizunaren inguruan, bere inguru hurbilenean esternalizazioak sortu ahal izateko.
- Enpresen berrikuntza jarduerari laguntzeko egitura malguak ezartzea.
- Frantziatik eta bereziki Iparraldetik hurbil egotea, merkatu berriak sartu ahal izateko eta lankideak izan daitezkeenekin topo egiteko.
- Enpresen arteko elkarlana baliabideak optimizatzeko eta sinergiak aprobetxatzeko.

- Finantzazioa lortzeko zailtasuna.
- Globalizazioa.
- BRIC lurraldeen eta inguruaren lehiakortasuna.
- Industria zoru garestia.
- Enpresa gehienak dauden egungo merkatuaren heldutasuna.
- Prozesuan etenaldiak izateko arriskuan dago berrikuntza enpresetan.
- Ikuspegi estrategiko eza.
- Gutxi ezagutzen dira balio-kateko eragileak eta elkarlanik ez dago haiekin.
- Beste jokabide bat eskatzen du egungo inguruak, aldea lortzeko estrategia gisa balioa eskaintzea da ezaugarri nagusia.

3.- “IRUNGO GARAPEN EKONOMIKOAREN ETA ENPLEGUAREN ALDEKO AKORDIO OROKORRAREN” AURREKARIAK ETA JARDUERAK

Irungo Udalak, hirian garapen ekonomikoa bultzatzeko duen konpromisoaren barnean, eta 2005. urtean Eskualdeko enpleguaren egoeraren diagnostikoa egin ondoren, **Enpleguaren aldeko Akordio Orokorra** egitea proposatu zuen, ekonomia, gizarte, instituzio eta prestakuntza eragileek, eta nolabait ere enpleguarekin loturiko hiriko hirugarren sektoreko erakundeek parte har zezaten, horiek guztiak alderdi garrantzitsuak baitira garapen ekonomikoa bultzatzeko eta lanpostuak sortzeko, eta baita enpleguaren kalitatea hobetzeko ere.

2001eko eta 2004ko ekitaldietan garatu zen Enpleguaren aldeko Ituna da ekimen honen aurrekaria; Irungo Udalak berak eta Gizarte Eragile garrantzitsuek hartu zuten parte hartan. Esperientzia hartu zen oinarri Akordioa egiteko, positibotzat hartu ziren alderdiak jaso ziren hartan, eta era berean ahaleginak egin ziren eztabaidagarrienak zuzentzeko.

Esperientzia horretatik abiatuta eta hobetu eta enpleguarekin loturiko esparru guztiak hartu nahian, Irungo Udalak **Irungo Garapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren aldeko Akordio Orokorra** jarri zuen abian 2005-2008 urteetarako, eta hartan biziki hartu zuten parte Irungo ekonomia, gizarte, instituzio eta prestakuntza eragileek. Akordio hori luzatzen joan da eta gaur egunera arte iraun du.

Akordio horretan parte hartu zuten erakundeen baterako lanaren fruitu, jarduera asko jarri dira abian urte hauetan, honako hauek esate baterako:

- ESPAZIOA, etorkizuna duten lanbideen Espazioa.
- Enpleguaren astea (hainbat edizio)
- Langileentzako prestakuntza.
- Sukaldaritza prestakuntza, kontratatuzeko konpromisoarekin.
- Egungo prestakuntza eskaintzak estaltzen ez dituen prestakuntza beharren azterketa.
- AUKERA, Gipuzkoako eta Iparraldeko hezkuntza zentroen Azoka.
- Hainbat gairen inguruko jardunaldiak: laneko osasuna, aukera berdintasuna, legeria, enpresentzako laguntzak, eta abar.
- Irungo enpresa txikiei laguntzak langileak kontratatuzeko.
- KREA, ekintzailatza eta berrikuntza Azoka.
- K-Biziak: negozio berriak jartzeko lokalak alokatzeko laguntzak.
- ERABAT, Bidasoako Hiri Behatokia.
- Enpresa tailerrak.
- Mugaz gaindiko foro ekonomikoa.
- Prebentzio kulturaren azterketa (laneko arriskuak) Irunen.
- Laneko gaixotasunen gida.
- Azken kurtsoetako ikasleak sentsibilizatzea laneko arriskuaren prebentzioaren inguruan.
- Ezinduak Gizartean Integratzeko Legearen betetze maila zehaztea.
- Pertsona etorkinek Irungo ekonomiari egiten dioten ekarpenaren azterketa.
- Zaintzaile ez-formalek Irungo ekonomiari egiten dioten ekarpenaren azterketa.
- Enplegua lortzeko zailtasunak dituzten pertsonen lanbideratze egoeraren diagnostikoa.
- Mendekotasuna duten adin txikikoak eta nagusikoak zaintzeko zerbitzuak lanbideratzeko bidean dauden pertsonentzat (ikastaroak, lan praktikak, tailerrak eta abar).
- Irungo Udalean gizarte klausula ezartzea.
- Lanbideratzeko bi enpresa sortzea: Soldatzea emakumeentzat (Sartu-Erroak) eta EkoCenter Bidasoa (Emaús)
- Turismo eta merkataritza sektoreak bultzatzeko ekintzak: Saborea Irun Dastatu, Sens Irun
- Eta beste.

Jarduera asko egin dira, zalantzarik ez dago horretan, hainbat publikorako eta jarduera ildo askotan oinarrituta. Horrenbestez, ontzat har daiteke egindako lana, egiteko gauza asko gelditzen badira ere oraindik, are gehiago gauden egoera ekonomiko honetan.

Irungo Udalak jarraituko du ildo horretatik lanean, Irun Ekintzan itunaren bidez, orain arte egindako lanari batzeko eta hobetu behar diren alderdiak hobetzeko, egungo ekonomia eta gizarte errealitate berrira egokitzeko neurri gisa. Izan ere, enpleguaren eta garapen ekonomikoaren alorrean sortutako guztiaz gainera, sortu eta mantendu egin da guztietan aktibo handiena, Irunen ekonomia garatzeko Akordio Orokorra osatzen duten gizarte, ekonomia eta prestakuntza eragileen eta hiriko hirugarren sektorearen sarea, hain zuzen ere. Irungo ekonomiaren garapenaren hobekuntzan eta laguntzan inplikaturiko pertsonak dira horiek, eta beren denbora, baliabideak, ahalegina eta ideiak eskaintzen dituzte Irungo hiriaren alde batera eta modu koordinatuan lan egiteko.

4.- IRUN EKINTZAN: IRUNERAKO JARDUEREN PROPOSAMENA ETORKIZUNeko GIZARTE ETA EKONOMIA ESPARRUAN

HELBURUA:

Hiriko ekonomia eta gizartea suspertzeko baldintzak bultzatu eta eskaintzea da Irun Ekintzan, Irungo garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko Itunaren helburu nagusia.

Helburu horren betetze maila ebaluatzeko, honako adierazle hauen jarraipena egingo da urtero:

Ebaluazio adierazleak:

Langabezia tasa.

Jarduera tasa.

Establezimendu kopurua mila biztanleko.

Enplegu kopurua mila biztanleko.

Eskatutako patente kopurua.

Gizarte segurantzian afiliatutakoen kopurua mila biztanleko.

Kontratu kopurua mila biztanleko.

Bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleen kopurua.

BPG

Nazioartekotze maila.

EDUKIA. JARDUERA ARLOAK:

1. ARLOA: ENPRESA ETA EKINTZAILTZA

Irungo enpresen berrikuntza diagnostikoa egin ondoren, hartan jaso eta aztertutik enpresa horien aukerak, indarguneak eta ahuleziak, eta horietan guztietan oinarriturik, Irunen dauden enpresen eta sektoreen lehiakortasuna hobetzeko eta agertzen ari diren sektore berriei laguntzeko proiektuak definituko dira.

Enpresen Gizarte Erantzukizunarekin (EGE) bat etorri beharko luke ekoizpen sektorearekiko proiektuen garapenak, eta horrenbestez, inguruan agertzen diren erronka nagusiei erantzuna eman beharko liekete, enpresen kudeaketan irizpide etikoak kontuan hartuta, interes talde guztietara begira balioa sortu eta banatu ahal izateko.

Irun Ekintzaneko kide guztientzako etenik gabe zabalik egongo da jardueren proposamena.

Ekintzailtza

Ekonomiaren garapenaz eta enplegua sortzeaz hitz egiten badugu, ezinbesteko faktorea da berritzen eta pertsona ekintzaileek abian jarritako prozesuetan laguntzen jarraitzea. Berariazko proiektuak eta ekintzak finkatuko dira hirian enpresa jarduera berria ezartzeko erabakia hartzen duten pertsonen laguntzeko, bai proiektua prestatzeko fasean bai negozioa ireki eta abian jartzeko fasean. Ildo horretatik, hiri eta industria eremuak osorik birmoldatzeko proiektuak jarriko dira abian, eta laguntzak emango dira alokairurako, hirigintza esku-hartzeetarako eta abar.

Irun Ekintzaneko kide guztientzako etenik gabe zabalik egongo da jardueren proposamena.

Garatu beharreko jarduera proposamena

Jarduera	Deskribapena
Enpresen hibridatze proiektuak	<p>Hiriko enpresek badakite gaur egun aldaketak eta hobekuntzak egin behar direla, baliabideak optimizatzeko, berritzeko eta bezeroentzako balio handiagoa sortu ahal izateko.</p> <p>Horretarako, gaitasun berriak eskuratu behar dira ezinbestean, taldean lan egin, arazoei konponbidea bilatu edo informazioa behar bezala kudeatu, eta diziplina anitzeko eta eragile askoko lankidetzaren bidez eskura daitezke horiek.</p> <p>Horretarako ezinbestekoa da manufaktura enpresen eta manufaktura enpresen eta zerbitzuen artean hibridazioa bultzatzea.</p> <p>Manufaktura enpresen hibridazioaren bidez diseina daitezke, esate baterako, fabrikazio metodo berriak, kostuak optimizatzeko eta produktu berritzaileak eskaini ahal izateko.</p> <p>Bestalde, manufaktura enpresen eta zerbitzu enpresen arteko hibridazioari esker, zerbitzu eta produktu berriak lor daitezke, balioa handiagoa dutenak, eskaintza osoagoa egingo delako eta bezeroaren beharrei hobeto erantzun zaielako.</p>
Mikroasoziazionismoa: Enpresa mikro, txiki eta ertainen estrategia merkataritzaren irekitzearen aurrean lehiatzeko.	<p>Kontuan izanik hiriko enpleguaren %49,94 10 langiletik beherako enpresek sortzen dutela, bideak bilatu behar dira era horretako enpresen lehiakortasuna indartzeko.</p> <p>Halaz ere, egungoa bezalako ikuspegi lehiakor berriaren aurrean, izaera globala baitu, ezinbestekoa da enpresen arteko lankidetzaren, tamaina txikiena duten enpresena bereziki.</p> <p>Horri esker, enpresa horiek lortuko dute, elkarlanaren bidez, tamaina handitzea eta lehiakorrak izatea.</p> <p>Halaz ere, elkarlana ez da helburu bilakatu behar, estrategia baizik, enpresei gaitasun osagarri</p>

	<p>berriak eskuratzeko aukera emango dien estrategia, bezeroei balio handiagoa eskaini ahal izateko.</p> <p>Kontuan izanik hiriko enpresa ehunaren aniztasuna, aukerak badira lankidetzak-erakunde eta laguntzeko egitura berriak sortzeko, mikroenpresei eta merkatuari irtenbide berriak eskaini ahal izateko eta mikroenpresa horien lehiarako ahalmena indartzeko.</p>
Bidasoa Prebentzioan	<p>Enpresan laneko arriskuen prebentzio plana kudeatzeko erabakia hartzen duten 10 langiletik beherako enpresentzako aholkularitza eta prestakuntza zerbitzua.</p> <p>6 hilabete irauten du prozesuak. Enpresako laneko arriskuen plana egiteko beharrezko prestakuntza eta aholkuak emango zaizkie, eta haren kudeaketa nola eraman erakutsiko zaie, langileei begira benetako segurtasuna ziurtatzeko, eta era berean, legearen eskakizunak bete ahal izateko.</p>
Enpresa leihatila bakarra	Leku bakar batean biltzea enpresek herri administrazioarekin egin beharreko tramiteak.
Pymes eta mikroenpresentzako berrikuntza zentroak (lanbide heziketako zentroak)	Lanbide heziketako zentroen eta enpresen arteko lankidetzak proiektuak, pymes eta mikroenpresen ikerketa eta garapen zentro bilakatuko lirateke lanbide heziketako zentroak.
Ekonomia sortzailea Irun Lab	Artisten eta pymesen artean elkarlana antolatzea. Helburu nagusia da enpresa txiki eta ertainen sortzeko gaitasunak garatzea eta beren negozioetan berrikuntzak sortzea.
Ekonomia sortzailea Irun Factory	Diziplina arteko proiektua da, eta hainbat arte eta gizarte esparru elkartzea du helburu. Sortzeko Fabrika da azken batean, eta zenbait proiektu aurrera eramateko espazioa eman eta eskaini nahi du, sormena lantzen duten pertsonen nahiz kolektiboek izan ditzaten beren kultura eta arte ekoizpen, prestakuntza edo esku hartze prozesuak aurrera eramateko beharrezko espazioak, baliabideak eta elkarlana, talentua eta kudeaketa parte hartzailea antzeman eta bideratu ahal izateko.
K- Biziak Beste eremu batzuetara zabaltzea	<p>Merkataritza eta zerbitzu jardura Irungo hirigunean pilotzen denez batik bat, pixkanaka-pixkanaka desagertzen joan dira erdigunean ez dauden eremuetako azpiegiturak.</p> <p>Joera horri buelta emateko, eremu batzuk suspertzeko eta kalea eta auzoa udalerriko biztanleentzako erakargarria izan dadin lortzeko jardura eta zerbitzu berriak sar daitezten bultzatzeko, K-Biziak Proiektuarekin jarraituko dugu, beharaldian dauden hiri eremuetan: Hondarribia kalea-Pinudi eta Pio XII-ko goiko aldea, merkataritza jarduerak jartzeko laguntza eman ahal izateko.</p> <p>Udalak alokairuaren kostua bere gain hartuko du enpresaren jardueraren lehen 2 urteetan, honako banaketa honen arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen 12 jardura hilabeteetan alokairuaren kostuaren %50 (BEZ barne), gehienez ere 400 euro hilabeteetan. • Hurrengo 12 hilabeteetan, alokairuaren kostuaren %25 (BEZ kanpo), gehienez ere 200 euro hilabeteetan.
Gizarte ekintzailatza	Hirugarren sektorea deiturikoaren barnean sartzen dira irabazi asmorik gabeko erakundeak, fundazioak, elkarteak, GKEak edo gizarte garapenerako erakundeak, esate baterako. Erakunde horien helburua da, inolako zalantzarik gabe, gizarte hobetzea eta bazterturik dauden giza taldeei laguntzea. Arazo horien konponketari ematen zaio lehentasuna eta ez onura ekonomiko

	<p>hutsari.</p> <p>Gizarte ekintzailetzak, horrenbestez, beste urrats bat egin nahi du eta, gizarterako berez duen balioaz gainera, etekin ekonomikoa lortu nahi du, ez lehenbiziko helburu gisa baizik eta herritarren, eta bereziki kolektibo baztertuenen ongizatea handitzeko bide gisa.</p> <p>Horrenbestez, gizarte mailan dauden desorekei edo bidegabekeriei irtenbidea bilatu nahi die ekintzailetzak, arazo zehatzei konponbide berritzaileak aplikatuta, eta era berean, gizartearentzako etekina eta enpresarako errentagarritasuna sortuz.</p>
Laguntza ekintzailetza berritzaileari	<p>Ekintzaileek edo enpresa gazteek abian jarritako 3 – 5 urteko bizitza duten proiektu berritzaileei laguntzea.</p> <p>Helburua da oraindik hasieran dauden enpresei laguntzea proiektu berritzaileak aurrera eraman ditzaten.</p>
Azterketak eta txostenak Erabat	<p>Kontua da azterketak eta txosten espezifikoak egitea, Irungo enpleguaren aldeko Itunak bultzatuta abian jarriko diren proiektuek oinarritzat har ditzaten.</p> <p>ERABAT Bidasoako hiri Behatokiaren esparruaren barnean egingo dira azterketa eta txosten horiek.</p>
Enpresen azpisektoreak eta zentro teknologikoekin eta zerbitzu aurreratuen enpresekin duten harremana dinamizatzea, lehiakortasuna hobetzeko proiektuak lortu ahal izateko	<p>Bi lan egingo lirateke aldi berean, alde batetik, tokiko zerbitzu aurreratuen enpresak bereizi eta horiei balio handiagoa eman, eta bestetik, industria azpisektoreen balio-katea dinamizatzeke eta aztertzeke lana, hauetan esate baterako:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Azpisektore elektriko-elektronikoa - Plastikoa-kautxu azpisektorea - Nekazarien eta industrien arteko azpisektorea <p>Enpresa ehuna zerbitzu aurreratuen enpresekin eta ezagutza zentroekin lotu ahal izateko</p>
Ekonomia solidarioko enpresa proiektuen bizkortzailea	<p>Ekonomia solidarioko enpresa proiektuen garapenean tresna berritzaileak jaso eta identifikatuko dituen gailua sortzea. Hautemaniko neurriak artikulatzea eta enpresa berrien sorrera bultzatzeko abian jartzea izango litzateke bizkortzea. (Azterketen zabalkundea, behatoki emaitzen zabalkundea, ekonomia solidarioko enpresak sustatzeko neurri bereziak, K BIZIAK berezia era honetako enpresentzako eta abar).</p>
Enpresentzako jardunaldiak	<p>Hiriko enpresentzako jardunaldiak edo/eta informazioa emateko hitzaldiak, hizlari adituen eskutik, enpresa munduarekin loturiko egungo gaien inguruan.</p>
KLUSTER IRUN	<p>Udala eta ekimen pribatua elkarlanean aitzeko bitariko esparruetatik hainbat klusterren sorrera bultzatzea elkarren artean sinergiak sortzeko, INDUSTRIA, MERKATARITZA, GARRAIOA, ZERBITZUAK,</p>

	<p>TURISMOA, HEZKUNTZA arloetan.</p> <p>Horiek guztiak ESKUALDEKO KLUSTER handi batean bilduak. Enpresa taldeak eta fusioak izango lirateke kluster horietatik landu beharreko esparruak, MASA KRITIKOA handitu ahal izateko.</p> <p>Behar bezala eta hainbat ikuspegitatik begiratuta aztertzea merkatuak eta joerak, eta baita haien erantzun egokiak ere, eguneroko lanean inplikaturiko pertsonen. Benetako I+G+B zentroak aztertu, planifikatu eta sortzea eta egiturak nazioartekotzea. Azpiegituretan inbertsio komunak planifikatzea, horiek optimizatu ahal izateko. Interesatuena plangintza eta elkartzea.</p> <p>IRUN MARKA sustatzea, enpresak ezartzeko EUROPAko hegoaldeko leku ezin hobe gisa.</p>
<p>lrungo enpresen eta ekonomia solidarioko enpresen artean informazioa trukatzeko esparruak</p>	<p>lrungo enpresen eta ekonomia solidarioko enpresen (Hirugarren Sektorea) artean informazioa trukatzeko esparruak finkatzea Irun Ekintzanekin loturik, enpresa horiek eskaini ditzaketen ondasunen eta zerbitzuen prestazioari begira ditzuten gaitasunak aurkeztu eta ezagutzera eman ahal izateko, prestazioen poltsa edo katalogoa sortuta. Lanpostuak betetzeko bitartekotza egiteko orduan diskriminazio positiboa eginez, bazterturik dauden edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonen (emakumeak) alde.</p>
<p>Jardunbide Egokiak zabaltea</p>	<p>Sektore pribatuko enpresen eta Hirugarren Sektoreko enpresen artean jardunbide egokiak eta elkarlana zabaltea, lrungo eta eskualdeko enpresa berriek parte har dezaten bultzatzeko.</p>
<p>Jardunbide Egokiak aintzat hartzea</p>	<p>Jardunbide egokiak izan dituzten edo lrungo Hirugarren Sektoreko enprekin elkartanean aritu diren sektore pribatuko enpresei egindako lan hori aintzat hartzea urtero, sari bat emanda. Hainbat kategoriako sariak jar litezke.</p>
<p>Zerga salbuespenak ekintzaileentzat</p>	<p>EJZ zergan (eta beste udal zerga batzuetan) salbuespena ezartzea bazterturik dauden kolektiboak lanbideratzeko ekonomia jarduera berriak abian jartzen direnean.</p>
<p>Gizarte intereseko jarduerak bultzatzeko zerbitzu-txekeak.</p>	<p>Zerbitzu-txeke lerroa ezartzea gizarte intereseko jarduerak bultzatzeko.</p>
<p>Gaspe kualifikatuentzako ideia-lehiaketa</p>	<p>Beka edo/eta ideia-lehiaketa poltsa osatzea lrunen kokatutako enpresetan dauden jarduerak edo jarduera-ildo berriak garatzeko proposamen berritzaileak –enplegu berrien sortzaileak- egiten dituzten gaspe kualifikatu ekintzaileentzat.</p>
<p>Aholkularitza lanbideratzeko zailtasunak dituzten ekintzaileei</p>	<p>Aholkularitza, prestakuntza eta beka programa sortzea enplegua lortzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako pertsonen banakako ekintzailetzei laguntzeko.</p>
<p>Funts abal-emailea</p>	<p>Funts abal-emailea sortzea enplegua lortzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako pertsonen sortutako proiektu berriak finantzatzeko.</p>
<p>Lanbideratze enpresak sortzeko turismo gunea</p>	<p>Turismo, kirol... erakargaritasuna duen gunea bat bilatzea (Merkatuaren Azterketa, Bideragarritasun Azterketa) Txingudi badiaren eta Bidasoa ibaiaren, Bidasoa ibaiaren bide berdearen, inguruan enpresa bat edo batzuk sortu ahal izateko, lanbideratzeko, gizarteratzeko eta ekonomia alternatibo eta solidarioko enpresak betiere.</p>
<p>Mugaz gairako topaketak</p>	<p>Ideiak eta esperientziak trukatzeko esparruak sortzea, kezka ekintzailea duten pertsonen parte har dezaten. Iparraldeko AndereNahia Elkartarekin eginiko lanaren modukoa. Iparraldeko elkarte horrekin edo beste batzuekin trukeak egitea. Ekintzaile txikien topaketak. Hori guztia arloan adituak</p>

ekintzaileen artean	diren eragileek lagunduta.
Gizarte berrikuntza bultzatzea	
GEK	Eskualdeko enpresei dei egitea kontratazioaren aniztasunaren inguruan informazioa emateko GEK elementu gisa.
Enpresen katalogoa	Enpresen Datu-basea sortu edo bultzatzea, enpresa horien ezaugarriak, jarduera, trukeak bultzatuko dituen zerbitzuak/erosketa/partekatzea/kopartizipazioa/azterketa/proiektuak/ideiak azalduta, emaitzak hobetu eta gastuak murriztu ahal izateko. Azken batean, aukerak, ezagutzak... elkarri azaldu eta partekatu.
Prestakuntza eta enplegua praktika ordainduekin	Prestakuntza eta Enplegu Proiektuak abian jartzea ekonomikoki konpentsaturiko praktikaldiekin, lanbideratzean espezializatutako erakundeek lagunduta.
Prestakuntza mugaz gaindiko ikuspegiarekin	Eskualdeko prestakuntza prozesu osoan kontuan izatea Frantziarekiko mugaren ikuspegia, bezero frantsesa, hizkuntza eta abar ezagutzea.
Mikrokontrolagailuekin programatzea	Enpresako beste arlo batzuetara zabalduta. (CONATEC enpresa)
Aluminiozko piezen diseinua eta mekanizatua Delta Hegal prototiporako	Macazaga proiektua, SMAAP SL enpresa
Erakuste/prestakuntza praktikorako lanetan parte hartzeko proposamena, Mikrodronekin irudiak airetik hartzeak eskaintzen dituen aukeretan	Topografia/Kartografia, Tamaina handiko industria objektuen, neurketa, uzta, landaredia, intsektu izurrien hautemate esparruetan eta abarretan aplikatzeko.
Prozesuen lehiakortasuna hobetzea energia berriztagarrien sektorean	Uhinek mugituriko elektrizitate aerosorgailuen ekipoen mantenua (CHEMIK enpresa).
Lehiakortasuna hobetzea produktuen eta prozesuen berrikuntzaren bidez	Diagnostikoaren bidez sumaturiko eta ematen ditugun espezialitateekin loturiko edozein beharretarako zabalik dagoen proiektua.
Lan/topaketa talde sektorialak	Enpresa txikiek laguntza eta baliabideak izateko topaketak.

enpresekin	
Araudia eguneratzeko jardunaldiak	Indarrean hastear dauden araudiak aztertzea eta enpresei, herritarrei eta ekintzaileei aurkeztea.
Pymesi aholkularitza ematea kontratazioaren alorrean	Prestakuntza zentroetarako eta beste eragile batzuentzako prestakuntza kontratu mota berrien eta kontratatze laguntzen inguruan, enpresa txiki eta ertainei aholkuak emateko eta kontratazioa suspertzeko.
Prestakuntza plana alternantzia	Prestakuntzaren bigarren urtean enpresan prestatzeko aukera ematea ikasleari; enpresarentzako laguntzak ditu kontratuak.
HEROBI eta ZERBEHAR sareak	Zerbitzu integralak enpresei.
Hirugarren adinekoentzako zerbitzuak bultzatzea	Hirugarren adinekoentzako zerbitzuen makro eremuaren sorrera bultzatzea.
Enpresa txikiak nazioartekotzea	Enpresa txikiek nazioartekotzeko bete behar dituzten baldintzei buruzko informazioa ematea
Eskoletako orientatzaileak sentibilizatzea Lanbide Heziketaren aukeraren inguruan	Lanbide heziketaren lan aukeren inguruko informazioa ematea ikastetxeetako orientatzaileei.

2. ARLOA: KUALIFIKAZIO ETA INSERTZIO SOZIOLABORALA

Lanpostuak sortzea ezinbestekoa da hiriaren garapen ekonomikorako, baina behar-beharrezkoa da une hauetan langabezian dagoen Irungo jendea ere.

Enpresa bateko, eta hedaduraz, lurralde bateko pertsonak dira erakundearen edo/eta hiriaren aktibo preziatu eta baliotsuena. Pertsona horien garapenaren eta pertsona horien lehiakortasunaren baitan daude, neurri handi batean bederen, enpresaren eta hiriaren lehiakortasuna, eta horiei esker nabarmenduko da eta bereiziko da gainerako enpresetatik eta lurraldeetatik.

Ildo horretatik, alor honetan hainbesteko eskarmentua duten hirugarren sektoreko erakundeekin batera egingo da lan, eta baina enplegu zerbitzuekin, prestakuntza zentroekin, eta noski,

enpresekin ere, pertsona horiek prestatzeko proiektuak abian jarri ahal izateko, ezagutzak, titulazioak eta funtsezko gaitasunak eskura ditzaten lan merkatuan berriro sartu ahal izateko.

Ez ditugu ahantzi behar lanbideratzeko zailtasunak dituzten pertsonak, horiek are ahulago bihurtu baitira, litekeena bada, egungo krisi ekonomikoko garai hauetan.

Irun Ekintzaneko kide guztientzako etenik gabe zabalik egongo da jardueren proposamena.

Garatu beharreko jardueren adibideak:

Jarduera	Deskribapena
Tailer berritzaileak langabezian dauden pertsonentzako	<p>Hiriko pertsona langabetuentzako jarduerak dira, enplegua lortzeko orientabideak emateko teknologia berrien bidez, gaitasun pertsonalak eta profesionalak lantzeko, bizitzan ari diren etapa berri horretara egokitzen laguntzeko, eta berriro lan merkatuan sar daitezen laguntzeko.</p> <p>Enpleguaren aldeko itunean parte hartu duten erakundeekin batera (prestakuntza zentroak, sindikatuak, enpresak) definitu eta garatuko dira tailerrak, parte hartzen duten pertsonak, nolabait ere, lan merkatuarekin eta merkatu horretan sortzen ari diren aldaketekin harremanetan egon daitezten.</p>
Gizarte klausula	<p>Lanbideratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonentzako enplegua sortzeko tresna gisa, sektore publikoko kontratazioetan gizarte klausula benetan aplikatu dadin bultzatzea.</p> <p>Gizarte Klausulen aplikazioan Irun bere bikaintasunagatik erreferente izatea lortzeko, Irungo Udalak eta enpresa publikoek, klausula horiek erabil ditzaten, bete beharreko jarraibideen erabilera orokortuz.</p>
Segurtasunez hazi	<p>Lastur lan merkatuan sartuko diren prestakuntza zentroetako gazteak prestatu eta sentsibilizatzeko ekintzak, laneko arriskuaren prebentzioak duen garrantziaz jabe daitezten, kolektibo horretan gertatzen baita, hain zuzen ere, laneko istripu kopuru handiena.</p> <p>Parte hartu duten ikastetxeak:</p> <p>IES Plaiandu BHI, Pio Baroja Institutua, IEPPS Bidasoa GBLHI, CIP Bidasoa, Irungo La Salle eta Mondragon Unibertsitatea</p>
Kontziliaziorako laguntzak	<p>Lanbideratzeko ibilbideetan murgildurik dauden nahiz prestakuntza ekintzetan eta tailerretan parte hartzen ari diren pertsonen kargu dauden mendeko pertsonak zaintzeko laguntzak.</p> <p>Gertu, eguneroko bizitzako zerbitzuak, proiektuaren bidez sortutako enpresen bidez emango dira zaintza zerbitzuak</p>
Lan-aurreko tailerrak	<p>Lan-aurreko tailerren programa jarraitua garatzea, praktika zainduak eta zuzenduak aurrera eramateko gero Irunen (edo Bidasoa eskualdean) dauden enpresetan, erakundeetan eta instituzioetan prestatzeko. Lan merkatutik urrutien (baztertuenak direnak) dauden pertsonentzako zerbitzua da, lan merkatura hurbiltzeko ekintzetan oinarritua, gutxienezko gaitasun pertsonalak eta profesionalak eskuratu ondoren, lan merkatura eramango dituzten beste baliabide batzuetara hurbildu ahal izateko.</p>
Prestakuntza eta enplegua	<p>Baztertuen dauden kolektiboentzako prestakuntza edo enplegu eta prestakuntza programak, eskualdea miatu ondoko lanetik sortzen diren ekonomi jardueretan (pertsonen perfilak eta lanpostuak egokitzea). Esate baterako: hirugarren adinekoak zaintzea, garbiketara, mendekoak,</p>

	etxeko lanak, iraunkortasunarekin eta ingurumenarekin loturiko jarduerak, hondakinen kudeaketa eta abar.
Hirugarren Sektoreko enpresak indartzea	Hirugarren Sektoreko enpresak indartzea ekipamendu eta zerbitzuetarako kalifikaturiko zoru horniduraren bidez, enpresa horiek finantzazio baldintza egokietan ezarri ahal izateko.
Irungo Hirugarren Sektoreko Enpresak ezartzeko laguntza	
Ezkutuko ekonomian ari diren emakumeak profesionalizatzea	Lehen deskribaturiko sektore horietan (hirugarren adinekoak zaintzea, garbiketa, mendekoak, etxeko lanak, iraunkortasunarekin eta ingurumenarekin loturiko jarduerak, hondakinen kudeaketa eta abar) modu informalean ari diren emakumeak profesionalizatzea.
Teknologia eta zuraren erabileran espezializatzea	Langabetuentzako ikastaroa, 90 eta 120 ordu artekoa. Zuraren eraldaketa, tratamendua, zurezko egituren muntaia eta abarren inguruko gaiak ikusiko dira.

LURRALDEA

Mugak eta trenbide azpiegiturek nabarmen markaturiko iragana izan du Irunek. Mugaldeko hiri izateak igartzeko hiriaren irudia ematen du berez, eta horrek inplikazio handiak izan ditu Irunerako eta nortasun handi eta berezia eman dio hiriari, eta baita bestelako eredu ekonomikoa era lurraldearen gainerakoaren aldean.

Mugak kentzea eta trenbide esparrua berrantolatzea aukera egokia izan da Irunerako, balio erantsi handiagoko lurralde posizionamendurantz aurrera egiteko, Bidasoako erdigune gisa, enpresa eragileak erakarriko dituen hiria izan dadin, eta turismoarentzako norako erakargarria bilaka dadin.

Ildo horretatik, lurraldearen posizionamendua hobetzearekin lotutako ekintzak jarriko dira abian. Zeharrean landuko dira jarduerak egiten duten Irun, lehenengo, ezaguna izan dadin, eta gero, eskaintza berezi eta erakargarria osatuko duten balio jakin batzuekin lotu dadin.

Irun Ekintzaneke kide guztientzako etenik gabe zabalik egongo da jardueren proposamena.

Jarduera	Deskribapena
Irun On Parte hartzaile gehiago	Garapen eredu lehiakorra sortzea, ekonomia, ingurumen eta gizarte mailetan iraunkorra, "hiria kanporantz nola proiektatu" erabakitze gogoetan oinarritua. Irun on programaren barneko jarduerak lagundu egiten dute Irun, lehenengo, ezaguna izan dadin, eta gero, eskaintza berezi eta erakargarria osatuko duten balio jakin batzuekin lotu dadin.

Aukera gehiago	<p>Lurraldearen posizionamendua hobetzearekin lotutako jarduerak dira, inguruko hiri nagusi gisa (Iparraldea eta Nafarroa barne). Jarduera horien helburua izango da jadanik dauden enpresen, enpresa sortu berrien eta Irungo herritarren irudia eta lehiakortasuna sustatzea.</p> <p>Merkataritzarekin, turismoarekin eta enpresa dinamizazioarekin loturikoak daude jarduera nagusien artean, esate baterako, Sens Irun, Irun Dastatu, Irun familiar, Etorri Iruna, eta baita merkataritza dinamizazioarekin eta industria ehunari balio handiagoa emateko eta ezagutzera emateko ekintzekin loturikoak ere.</p>
Izokinaren azoka	Urtero Izokinaren Azoka egitea, izokinarekin loturiko dastaketa, salmenta eta beste jardura batzuekin.
Irun labela sortzea (Bidasoa)	
Irun marka sortzea (Bidasoa)	
Mugaz gaindiko hiria sustatzea	Mugaldeko hiri izateak duen abantaila aprobetxatzea sustapenak egiteko garaian.
Enpresa ehuna "lurralde osasungarri" kontzeptuarekin lotzea	<p>Kontua da ostalaritza, merkataritza, nekazaritza eta arrantza sektoreek eta turismo zerbitzuek sarean lan egitea, tokiko produktuei eta baliabideei balio handiagoa emateko, "lurralde osasungarriaren" kontzeptua eraiki dadin:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bertako produktuaren merchandisinga turismo bulegoen bidez - Bertako produktuari balio handiagoa ematea ostalaritzaren eta merkataritzaren bidez. - Dauden pasealekuak, ibilbideak eta beste jardura batzuk bultzatzea.
Negozioko turismo produktua garatu eta kudeatzeko plana (MICE)	Pizgarriak sortzea negozio, kongresu, fam-trips, publikoari egokitutako turismo produktuak eragiteko eta negozioko turismorako norako estrategiko gisa posizionatzeko.

LANBIDE

Tokiko ekonomia garatzeko eta enplegua sortzeko proiektuak bultzatzeko laguntza deialdia. Enplegu eta gizarte gaietarako Kontseilariaren 2012ko maiatzaren 9ko aginduak xedaturikoaren arabera egiten diren eskualdeko planetatik etorritako proiektuak dira, agindu horren bidez egiten badira eskualdeko enplegu planak dinamizatzeko laguntzetarako deialdiak.

1. Enplegu eta prestakuntza proiektuak.

Eskualdeko Enplegu Planekin loturiko proiektuak dira, lanbideratzeko zailtasunak dituzten eta beren egoera hobetu nahi duten pertsonentzako enplegua eta prestakuntza konbinatzen dituztenak, enplegua aurkitu ahal izateko. Prestakuntza teoriko-praktikoa eta lanposturako prestakuntza emateko tresnak eskaini nahi ditu Proiektuak, proiektu osoan zehar jarraipen personalizatua eginez, honako fase hauekin:

- Prestakuntza Okupazionala: Teorikoa eta praktikoa espezialitate batean.

- Lanposturako prestakuntza emango zaie parte hartzaile guztiei, eta gutxienez sei (6) hilabeteko kontratuak egingo zaizkie.
- Jarraipen pertsonala eta Lanbideratzeko Plana definitzea behin proiektua bukatu ondoren.

Deialdi honek lagunduko duen enplegu eta prestakuntza proiektu bakoitzak gutxienez 6 lagun beharko ditu enplegu eskatzaile gisa inskribatuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan; horietatik gutxienez %50 Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen duten pertsonak izango dira eta beste %50ean daudenak honako lehentasunezko kolektibo hauetakoak izango dira, DBE jasotzen ez dutenak, gutxienez %30: 30 urtetik behera dituzten enplegu eskatzaileak, kualifikazio txikikoak, 45 urtetik gorako luzaroan langabetuan daudenak, gizartean baztertze arriskuan dauden pertsonak, ezintasunak dituzten pertsonak, erregimen irekian dauden pertsona espetxeratuak.

Enplegu eta prestakuntza proiektuaren kontratazio fasean laguntza hau eduki ahal izateko, kontratuen iraupena sei (6) hilabetekoa izango da gutxienez, eta betiere laguntza emango da kontratazioaren lehen sei hilabeteetan, Gizarte Segurantzarekin loturiko gastuak kontuan izan gabe.

2. Ekintzailetza eta autoenplegu proiektuak.

Laguntza hauen helburua da Eskualdeko Enplegu Planetan proposaturiko enpresa ekimenen sorrera lagundu eta bultzatzea, bai autoenpleguaren bidez bai beste edozein forma juridikotan (kooperatibak, lan sozietateak eta abar), tokiko garapenaren ikuspegitik begiratuta, eta lurralde esparru bakoitzeko enplegu aztarnategi berriekin eta interes estrategikoko sektoreekin loturik, Eskualdeko Enplegu Planetan zehaztuak guztiak ere.

Ekintzailetza eta autoenplegu laguntza horien helburua da enpresen eta autonomoen sorrera bultzatzea zerbitzu integralaren bidez. Zerbitzu horrek orientazioa, abian jartzeko aholkularitza, gaitasunen eskuratzea eta enpresa jabekuntza jasotzen ditu erabilitzailearentzako ekarpen nagusi gisa.

Honako tipologia hauek hartzen dituzte deialdi honetan jasotako laguntzek:

- Bideragarritasun azterketa eta Enpresa Plana egiteko aholkularitza.
- Abian jartzeko aholkularitza: osatze fasea, sektoreak bere dituen espezialitateetako laguntza teknikoa nahiz tramite, laguntza eta finantziario bideen inguruko laguntza teknikoa.

Nolanahi ere, 2013ko urria baino lehen eman beharko da alta EJZn –Ekonomia Jardueren gaineko Zerga-.

3. Kontratazioan laguntzeko proiektuak.

Eskualdeko Enplegu Planekin loturiko Proiektu Berezien esparruan laguntzak emango dira Lanbide-Euskal Enpleguaren Zerbitzuan langabetu gisa inskribatuta dauden pertsonak kontratatzeko.

Helburua da enpresa edo/eta udal ekimenei laguntza ekonomikoa ematea, edozein dela ere haien forma juridikoa, Eskualdeko Enplegu Planekin loturiko proiektu berezi baten inguruan pertsonak kontratatzeko, baina inola ere ez jada dauden programei edo bere garaian egon zirenei jarraipena emateko.

Deialdi honek lagunduko duen kontratazio proiektu bakoitzak gutxienez 6 lagun beharko ditu enplegu eskatzaile gisa inskribatuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan; horietatik gutxienez %50 Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen duten pertsonak izango dira eta beste %50ean daudenak honako lehentasunezko kolektibo hauetakoak izango dira, DBE jasotzen ez dutenak, gutxienez %30: 30 urtetik behera dituzten enplegu eskatzaileak, kualifikazio txikikoak, 45 urtetik gorako luzaroan langabetuan daudenak, gizartean baztertze arriskuan dauden pertsonak, ezintasunak dituzten pertsonak, erregimen irekian dauden pertsona espetxeratuak.

Laguntza hau eduki ahal izateko, kontratuen iraupena sei (6) hilabetekoa izango da gutxienez, eta beti ere laguntza emango da kontratazioaren lehen sei hilabeteetan, Gizarte Segurantzarekin loturiko gastuak kontuan izan gabe

4. Prestakuntza proiektu espezializatuenak.

Eskualdeko Enplegu Planekin loturiko prestakuntza planak izango dira betiere, berariazko izaerarekin eskualde bakoitzerako, eta Lanbide-Euskal Enplegu Agentziaren prestakuntza arloaren urteko nahiz egungo ohiko programazioan edo izan dezakeenean jasota ez daudenak.

Prestakuntza ekintzen helburua izango da lanpostu batean jarduteko gaitasun profesionalak ematea, bildutako eskarmentuaren osagarri gisa edo/eta birkualifikaziorako prestakuntza berria. Nolanahi ere, ad-hoc prestakuntza izango da pertsona taldeen eta enpresa jakin batzuen beharren arabera:


– Desagertzeko EEE prozesuan dauden enpresetako langile taldeak birkualifikatzeko prestakuntza, lurralde esparru aplikagarrian dauden enpresetakoak betiere.

– Langabezia dauden pertsona taldeak kualifikatzeko prestakuntza, enpresaren jarduera ildo berriekin loturik.

Prestakuntza espezializatuak dauden erakunde publiko edo pribatu, propio edo kanpoko bidez emango dira prestakuntza ekintzak.

5.- “IRUN EKINTZAN” ITUNAREN EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA

Iruren gizarte eta ekonomia garapena sustatzeko egitura izan nahi du Irun Ekintzan itunak, enplegu duina, iraunkorra, berritzailea eta lehiakorra sortuta. Ondoren adierazten diren organo hauek osatuko dute egitura hori:



Irungo Udala.

Udala, herritarren ordezkari borondatetik etorritako kudeaketa organo gisa, eta Alkate-Lehendakaria, haren ordezkari goren gisa eta ordezkari nagusia delako IRUN EKINTZAN, *Irungo garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko Itunaren* lehendakari moduan, izango dira proiektu honen buru, Irun Ekintzanen egitura abian jarri eta garatzeko beharreko errekurtsok bultzatu, dinamizatu eta emanaz.

Zehatzago esateko, sustapen ekonomiko eta plan estrategikoko Arloak hartuko du bere gain Irun Ekintzan *Irungo garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko Itunaren* ardura.

Kontseilu Nagusia.

Norbere borondatez IRUN EKINTZAN, *Irungo garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko Itunari* atxikitzeko erabakia hartzen duten eragile guztiek osatuko dute Kontseilu Nagusia, eta input gisa balio izango dio Alkate-Lehendakariari, Udalari nahiz Batzar Nagusiari, eragile horiei beharreko aholku guztiak eta jarraibide orokorrak eman eta ekonomia edo gizarte izaerako proiektu eta proposamen zehatzak eginez.

Azken batean, kontua da, planteatuko diren arazo desberdinen aurrean hiriko eragile sozioekonomikoek duten ikuspegia jasotzea.

Kontseilua urtean behin bilduko da, baina beharrezkotzat hartzen den guztietan zabaldu egingo da maiztasun hori.

Batzorde Kudeatzailea.

Batzorde Kudeatzailearen esku geratuko da IRUN EKINTZAN, *Irungo garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko Itunaren* kudeaketa.

Jarduteko jarraibide nagusietan eta jarraitu beharreko estrategian aholkuak emateko eta arlo desberdinen jardura proposamenak onartzeko eskumena izango du.

Batzorde Kudeatzaileak, IRUN EKINTZAN, *Irungo garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko Itunaren* ordezkari gisa jardun ahal izango du Irungo Udalaren eta Alkate-Lehendakariaren adostasunarekin eta ebazpenarekin.

Irungo Udaleko Ekonomia eta Ogasun Arloko Zinegotzi eta Bidasoa bizirikeko Lehendakaria izango da Batzorde Kudeatzaileko buru.

Batzorde Kudeatzailean parte hartuko dute:

Ogasun, sustapen ekonomiko eta plan estrategiko Arloko Zuzendariak.

Bidasoa bizirikeko Zuzendari Nagusiak.

Arloetako koordinatzaileak.

Akordioaren koordinatzaile teknikoak.

Mondragon Unibertsitateak.

Sindikatuak.

Batzordera beharrezkotzat hartzen dituzten teknikariak eta aholkulariak, ahotsez baina botorik gabe, etortzeko eskatu ahal izango dute Batzorde Kudeatzaileko kideek.

Batzorde Kudeatzailea hilerok bilduko da. Bileren maiztasuna aldatu ahal izango da Batzorde Kudeatzaileko kideek egokitzen hartzen duten guztietan.

Arloetako koordinatzaileak.

Arlo bakoitzeko koordinatzaileak arduratuko dira dagozkien arloetan berriazko jarduerak jaso eta proposatzeaz, gero Batzorde Kudeatzaileari aurkezteko.

Hona hemen arlo bakoitzerako koordinatzaileen proposamena:

- Enpresa arloko koordinatzailea: Enpresa pribatuak (2).
- Ekintzailetza arloko koordinatzailea (2)
- Kualifikazio eta lanbideratze arloko koordinatzailea.(2)
- Lurralde arloko koordinatzailea.(2)

Jardueren abiatzeak markaturiko beharren arabera bilduko dira jardura arloak.

Laguntza teknikoa.

Irungo Udalaren eta Bidasoa bizirikien sustapen ekonomiko eta plan estrategiko arlotik emango zaio laguntza teknikoa IRUN EKINTZAN, *Irungo garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko Itunari*.

Laguntza tekniko hori izango dute arloko koordinatzaileek, eta honako zeregin hauetaz arduratuko da:

- Proiektuak prestatzeaz.
- Proiektuetarako finantziarioa bilatzeaz.
- Jardueren koordinazio teknikoaz Akordioaren eragile desberdinekin.
- Jarduerak abian jartzeaz.

Irun Ekintzanen teknikari koordinatzaileak eramango du Irun Ekintzan, *Irungo garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko Itunaren* koordinazio tekniko orokorra, eta honako egiteko hauek izango ditu:

- Akordioaren Barne koordinazioa: bilerak antolatu eta deialdiak egin, komunikazioa.
- Arlo desberdinei lagundu eta koordinatu.
- Erreferentzia izango da Akordioaren kideentzako: proposamenak jaso eta abar.
- Jarraipen ekonomiko eta justifikazioa. Prozesu administratiboak.
- Akordioaren araberrako jarduerak: abian jarri eta laguntzea, Akordioaren arduradunaren erabakiaren arabera.

Proposatutako arlo estrategiko bakoitzaren ikuspegi globala izango du Akordioaren koordinatzaile teknikoak.

Irungo Udaleko prentsa taldearen laguntza izango da abian jartzen diren jarduerak jakinarazteko eta egokitzat hartzen diren guztien berri emateko.

Koordinazio taldeak beharreko laguntza tekniko guztia izango du jarduerak aurrera eramateko, Batzorde Aholkulariaren onarpenarekin betiere.

Idea komunitatea eta Ezagutzaren agenteak

Azken urte hauetan top-down modukoak izan dira lurraldeak garatzeko izaera estrategikoko erabakiak. Halaz ere, informazioaren teknologia berriak eta azken gizarte mugimenduak erakusten ari dira parte hartze irekia izateko prozedurak artikulatu behar direla, ikuspegi, proposamen eta proiektu berri ugari aurkeztu ahal izateko, bestela ezin izango bailirateke horiek entzun eta jaso.

Horrenbestez, izaera birtual eta fisikoko espazioak egokitzea proposatzen da, haien bidez, IRUN EKINTZANen sarrera izango duten jarduera eta proiektu ideiak proposa ditzaten ekintzaileak izan daitezkeenek eta emaile boluntario eta altruistek. Talde koordinatzailearen egitekoa izango da ekimen horiei eta ekimen horien bultzatzaileei sarrera egitea eta, hala behar badu, abian jartzen laguntzea.

6.- ERAGILE PARTE HARTZAILEAK.

Irungo Udala buru dela, Irungo Garapen Ekonomikoaren eta Enpleguaren aldeko Akordio Orokorreko (2005-2011) kideak dira neurri handi batean Irun Ekintzan osatzen duten eragileak, eta enpleguaren eta garapen ekonomikoaren gaitan lurraldean eragin handia duten eragile ugari elkartu zaizkie horiei.

- **Irungo Udala.**
- **Bidasoa bizirik.**
- **Ekonomikoak**
- **Enpresak.**
- **Enpresa elkarteak.**
- **Beste Herri Administrazio batzuk.**
- **Hirugarren sektoreko eragileak.**
- **Sindikatuak.**
- **Unibertsitatea**
- **Zentro teknologikoak.**
- **LHko zentroak.**
- **Ekintzaileak**

7.- PROIEKTUAREN FASEAK. KRONOGRAMA

Oinarrizko proiektua prestatzeko eta balioduntzeko bilerak.	Maiatza	Udala Bidasoa bizirik MU
Oinarrizko proiektua Udaleko talde politikoei aurkeztea.	Ekaina	Udala Bidasoa bizirik MU
Alkatearen jakinarazpen idatzia edo/eta on line Irun Ekintzanekeo kideei Oinarrizko Dokumentuarekin eta Diagnostikoarekin. Lehen hartu-emanak	Ekaina	Udala Bidasoa bizirik MU
Bilera Akordio kide guztiekin eta erakunde berriekin. Prozesu berri bat hasiko dela jakinaraztea.	Uztailak 12	Udala Bidasoa bizirik MU
Hartu-emanak eta banakako elkarrizketak Akordio orokorreko kideekin. Atxikipen Gutuna sinatzea	Uztaila- Iraila	Udala Bidasoa bizirik MU
Hartu-emanak eta elkarrizketak eragile berriekin. Atxikipen Gutuna sinatzea	Uztaila- Iraila	Udala Bidasoa bizirik MU
Proiektu osoa idaztea: jarduera zehatzak. Aurrekontua.	Uztaila – Iraila (batzar nagusiaren ondoren hasi)	Udala Bidasoa bizirik MU
Batzar Nagusia	Iraila - Urria	Udala Bidasoa bizirik MU
Irungo Udalaren Osoko Batzarra Ekintza proposamena eta aurrekontua	Urria	

8.- EPEA

Hiru urteko indarraldia finkatu da Irun Ekintzan itunerako, 2012ko urritik hasi eta 2015eko abendura bitarte.

9.- AURREKONTUA

2012rako prestatze ekintzak eta ekintza nagusiak: 214.960 €

2012-2015 jarduerak: parte hartzaileek zehaztu beharrekoak.

